



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko otsailaren 14a

31. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Eguesibarko Udalarari buruzko 2015eko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (5. or.).

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

## **Eguesibarko Udalari buruzko 2015eko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Eguesibarko Udalari buruzko 2015eko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **Eguesibarko Udalari buruzko 2015eko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- |  |  |
|--|--|
| <p><b>I.</b> Sarrera (6. or.).</p> <p><b>II.</b> 2015eko kontu orokorrari buruzko iritzia (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.1. Auditoriaren finantzarioko iritzia (10. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.2. Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia (10. or.).</p> <p><b>III.</b> Udalaren 2015eko kontu orokorraren laburpena (11. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.1. 2015eko ekitaldiko aurrekontu likidazioaren egoera-orria (11. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.2. 2015eko ekitaldiko aurrekontu-emaitza (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.3. Diruzaintza-gerakina 2015eko abenduaren 31n (12. or.).</p> | <p style="padding-left: 20px;">III.4. Egoera-balantzea 2015eko abenduaren 31n (13. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.5. Galeren eta irabazien kontua 2015eko abenduaren 31n (14. or.).</p> <p><b>IV.</b> Oharpenak, iritzian eraginik ez dutenak, eta gomendioak (15. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2015eko abenduaren 31n (15. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (18. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.3. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetze-maila. (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.4. Alderdi orokorrak (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.5. Langileak (20. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.6. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (22. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.7. Transferentzien ondoriozko gastuak (23. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.8. Inbertsioak (24. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.9. Aurrekontuko diru-sarrerak (25. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.10. Hirigintza (26. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.11. Andacelay SL sozietate publikoa (28. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.12. Gestión y Promoción Egüés 21-II SL sozietate mistoa (28. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (29. or.).</p> <p>Aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (29. or.).</p> <p>I. eranskina. 2015eko ekitaldiko Kontu Orokorraren oroitidazkia.</p> <p>(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:<br/><a href="http://www.cfn Navarra.es/camara.comptos">www.cfn Navarra.es/camara.comptos</a>).</p> |
|--|--|

## I. SARRERA


Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2016rako jarduketa-programari jarraituz, Eguesibarko Udalaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorrak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek, funtsean: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazki ekonomikoa.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2015eko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Eguesibarko Udalarari 2015eko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloko araudia ere.

Eguesibarko udalerriak 53,57 km<sup>2</sup> ditu. Honako hauek osatutako udalerrri konposatua da: Altzuza, Ardanatz, Azpa, Badoztain, Egues, Elkano, Elia, Ibiriku, Olatz eta Sagasetako kontzejuak, Etxalatz, Amokain, Erantsus, Elizmendi eta Egulbatiko jaurerriak eta Uztarroze, Gorraitz eta Sarrigurengo herriguneak.

Udalaren eta haren mendeko erakundeen osaera honako irudi honetan ikusten da:



2015eko urtarrilaren 1ean, 19.603 biztanle zituen; horietatik, ehuneko 85 inguru Sarrigurenen eta Gorraitzen bizi dira. Jasota utzi behar da 2006tik udalerriak biztanle kopurua hirukoiztu egin duela.

2015eko ekitaldia ixtean, honako hauek ziren entitate honen funtsezko datu ekonomikoak:

Entitatea	Aitortutako bete-beharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2015-12-31n
Udala	10.267.602	11.041.084	133

### Enpresen Sektore Publikoa.

2004ko urrian, Udalak “Andacelay SL” Udalaren hirigintza-sozietatea sortu zuen, bazkide bakarra Udala bera duela. Sozietate horrek ehuneko 51eko partaidetza dauka “Gestión y Promociones Egües 21-II, S.L.” sozietate mistoan —2010ean sortua—.

Bi sozietate hauek udaletxean dute egoitza soziala.

Bi sozietateei buruzko datu nagusiak hauek dira:

Enpresa publikoak	Diru-sarrerak	Gastuak	Langileak, 2015-12-31n	Ekitaldiko emaitzak	Epe laburreko zorra
Andacelay SL	88.603	-120.674	1	-32.071	0
Gestión y Promoción Egües 21 II S.L.	2.220.346	-1.971.006	0	249.340	738.750

### Mankomunitateak

Eguesibarko Udala Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraiokoak eta ibai-parkearen kudeaketakoak. Udalak 2015ean Mankomunitateari honako kontzeptu hauengatik transferentziak egin dizkio:

Zerbitzuak	2015eko ekarpenak	2014ko ekarpenak	2015-2014 aldea
Eskualdeko hiri-garraioa	233.756	267.129	-12
Ibai-parkearen kudeaketa	50.165	47.861	5
Guztira	283.920	314.990	-10

Hurrengo taulan laburbilduta ageri dira ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua:

Udal zerbitzuak	Udala	Merkatari-tza sozietate osoa	Mankomunitatea	Zerbitzuen kontratazioa	Merkatari-tza-sozietate mistoa
Administrazio zerbitzu orokorrak	X				
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	X				
Etkez etxeko laguntza-zerbitzua	X				
Genero indarkeriaren prebentzioa				X	
Lehen eta bigarren hezkuntzako koedukazio programak				X	
Atezaintza	X				
Berdintasun zerbitzuak	X				
Tokiko enplegu- eta garapen-zerbitzuak	X				
Kirolak	X				
Kultura	X				
Musika Eskola	X				
Hirigintza	X	X			X
Lorategiak	X			X	
Uraren ziklo integrala			X		
Hiri-hondakinak			X		
Garraio publikoa			X		
Haur Hezkuntzako Zentroaren zerbitzua, 0-3 urteko zikloa	X			X	
Udal eraikinen garbiketa eta mantentzea				X	
Kale garbiketa	X				
Kirol-instalazioen funtzionamendua				X	
Kirol instalazioetako taberna-jatetxearen kudeaketa				X	
Liburutegia-ludoteka	X			X	
Familia laguntzarako zentroa				X	
Udako hiri-kanpalekuaren kudeaketa	X			X	
Diru-bilketa exekutiboa	X			X	

Udalaren 2015eko aurrekontua ez zuen udalbatzak onetsi, eta 2014koa luzatu zen, abenduaren 31ko 1387/2014 Alkatetzaren Dekretuaren bitartez.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren atalean, Udalaren 2015eko kontu orokorrari buruz daukagun iritzia ematen dugu, eta hirugarrenean Udalaren egoera-orri garrantzitsuenen laburpena jaso dugu. Azkenik, laugarrenean, gure iritzian eraginik ez duten alderdiei buruzko oharra jaso ditugu (Udalaren egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea eta alderdi orokorrak), bai eta Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun arlokako iruzkin, ondorio eta gomendioak ere.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2015eko ekitaldiko kontu orokorreari buruz eginiko oroitidazkiarekin.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak Eguesibarko Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, alegazioak aurkez zitzaizkion. Finkatutako epea iraganda, alkatearen alegazioak jaso ditugu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Eguesibarko Udaleko eta enpresa publikoko langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. 2015eko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Eguesibarko Udalaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako hirugarren atalean.

### *Udalaren erantzukizuna*

Kontu-hartzailera da kontu orokorra osatzeko ardura duena. Kontuak halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzeptzioa, ezarpena eta mantentzea.

2016ko irailaren 6ko Osoko Bilkurak 2015eko kontuak onetsi zituen.

Udalak, urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrolen sistemak ezarri beharko ditu.

### *Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna*

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontrolen erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzi emateko.

Finantzen eta legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako iritzi hau eratortzen da.

## II.1. AUDITORIAREN FINANTZARIOKO IRITZIA

### *Iritzia*

Udalaren 2015eko ekitaldiko Kontu Orokorrak fidelki jasotzen ditu alderdirik behinenetan gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta egin dituen eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko behar den informazio guztia biltzen du, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

### Beste gai garrantzitsu batzuei buruzko lerrokada

Finantzen fiskalizazioari buruz daukagun irudian eraginik izan gabe, esan behar dugu ez dakigula zein izan litekeen Udalak nozi litzakeen ondorio ekonomikoen emaitza, Udalean eratutako ikerketa batzordeak (2011n sortu zen) aurrera eraman dituen jarduketak direla-eta eta Kontuen Ganberak 2004-2013 urteetako kontratazio- eta kudeaketa-prozedurei buruz egindako txostena dela-eta. Batzorde horren ondorioak Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zituen 2012ko maiatzean, eta ondorio horiek Agoizko Epaitegiari, fiskaltzari eta Foru Ogasunari helarazi zitzaizkien, jarduketa horietatik erator litezkeen erantzukizunak erabaki zituzten.

## II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

**III. UDALAREN 2015eko KONTU OROKORRAREN LABURPENA**

Ondoren, Udalaren 2015eko ekitaldiko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak azaltzen ditugu.

**III.1. 2015eko EKITALDIKO AURREKONTU LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA**

## Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak	Kobratzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutakoaren gainean (%)
1. Zuzeneko zergak	3.648.110	0	3.648.110	4.304.070	3.640.654	666.416	118	39
2. Zeharkako zergak	225.000	0	225.000	84.345	58.295	26.049	37	1
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak.	1.311.600	125.000	1.436.600	1.677.037	1.521.896	155.141	117	15
4. Transferentzia arruntak	4.094.800	9.300	4.104.100	4.521.000	4.198.501	322.498	110	41
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	794.800	0	794.800	150.113	145.970	4.144	19	1
6. Inbertsio errealak beste- rentzea	52.500	0	52.500	274.519	274.519	0	523	2
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	67.000	1.681.278	1.748.278	30.000	30.000	0	2	0
9. Finantza-pasiboan aldea	1.500.000	0	1.500.000	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>11.693.810</b>	<b>1.815.578</b>	<b>13.509.388</b>	<b>11.041.084</b>	<b>9.869.835</b>	<b>1.171.249</b>	<b>82</b>	<b>100</b>

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutako betebeharren gaineko %
1. Langile-gastuak	4.617.165	238.550	4.855.715	4.815.791	4.720.288	95.503	99	47
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	3.767.310	64.510	3.831.820	3.576.110	3.205.711	370.398	93	35
3. Gastu finantzarioak	3.300	0	3.300	45	45	0	1	0
4. Transferentzia arruntak	1.036.535	74.680	1.111.215	911.025	747.996	163.029	82	9
6. Inbertsio errealak	0	1.429.838	1.429.838	956.631	801.694	154.937	67	9
7. Kapital-transferentziak	0	8.000	8.000	8.000	0	8.000	0	0
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>9.424.310</b>	<b>1.815.578</b>	<b>11.239.888</b>	<b>10.267.602</b>	<b>9.475.735</b>	<b>791.867</b>	<b>91</b>	<b>100</b>

2014ko aurrekontuak luzatzen dituen Alkatetzaren Dekretua (1387/2014 AD) inbertsioetako kontu-sailak kentzen ditu eta goranzko doikuntzak egiten ditu, 225.700 eurokoak, gastuen aurrekonturako. Horrenbestez, gastuen aurrekontua 9,4 milioi eurokoa da eta diru-sarrerena, berriz, 11,7 milioi eurokoa, nahiz eta diru-sarreraren 2,3 milioi badauden, ez direnak programa informatikotik kendu eta ezin izanen direnak berriz exekutatu.



## III.2. 2015eko EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2015eko ekitaldia	2014ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	11.041.084	10.327.905
- Aitortutako betebeharrak	10.267.602	9.469.895
= Aurrekontu-emaiza	773.482	858.010
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	0	0
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	0
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzatutako gastuak	1.113.701	44.845
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	0	0
= Aurrekontu-emaiza doitia	1.887.183	902.855

## III.3. DIRUZAINZA-GERAKINA 2015eko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2015eko ekitaldia	2014ko ekitaldia
+ Kobratzeko dauden eskubideak	707.134	1.651.189
+ Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.171.249	561.252
+ Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	1.505.720	1.400.485
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	14.041	981.767
+ Ordainketen itzulketak	1.279	13
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-4.879	-2.875
- Bilketa zaileko eskubideak	-1.980.276	-1.289.453
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	-1.061.775	-1.172.444
- Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	-791.867	-759.835
- Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	-21.816	-47.256
- Diru-sarreraren itzulketak	-940	-5.018
+ Aplikatzeko dauden gastuak		132
- Aurrekontuz kanpoko gastuak	-247.151	-360.467
+ Diruzaintzako funts likidoak	2.063.733	1.202.553
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	-	-
(=) Diruzaintza-gerakina, guztira	1.709.092	1.681.298
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina	-273.091	0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	0	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.436.001	1.681.298

## III.4. EGOERA-BALANTZEA 2015eko ABENDUAREN 31n

## Aktiboa

Deskribapena	2015eko ekitaldia	2014ko ekitaldia
A Ibilgetua	72.660.580	63.506.028
1 Ibilgetu materiala	52.776.891	46.809.327
2 Ibilgetu ez-materiala	516.015	515.864
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	19.323.832	16.106.995
4 Herri-ondasunak	36.241	36.241
5 Finantza-ibilgetua	7.601	37.601
C Zirkulatzaila	4.756.022	4.146.498
7 Izakinak	0	0
8 Zordunak	2.692.289	2.943.813
9 Finantza-kontuak	2.063.733	1.202.685
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>77.416.602</b>	<b>67.652.526</b>

## Pasiboa

Deskribapena	2015eko ekitaldia	2014ko ekitaldia
A Ondare garbia	76.349.948	66.477.075
1 Ondarea eta erreserbak	69.250.721	59.491.778
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	1.517.942	1.404.012
3 Kapitaleko diru-laguntzak	5.581.285	5.581.285
C Epe luzeko hartzekodunak	0	0
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	0	0
D Epe laburreko hartzekodunak	1.066.654	1.175.451
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	1.061.775	1.172.576
6 Aplikatzeko dauden kontu-sailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	4.879	2.875
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>77.416.602</b>	<b>67.652.526</b>

## III.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA 2015eko ABENDUAREN 31n

## Ekitaldiaren emaitza korrontea

Zor			Hartzeko		
	2015	2014		2015	2014
3	Hasierako izakinak		3	Bukaerako izakinak	
39	Izakinaren prezioaren beherapenaren ondoriozko hornikuntzak (ekitaldiko hornikuntza)		39	Izakinaren prezioaren beherapenaren ondoriozko hornikuntza (aurreko ekitaldiko hornikuntza)	
60	Erosketak		70	Salmentak	882.225 797.309
61	Langile-gastuak	4.867.793 4.494.520	71	Ondasunaren eta enpresaren errenta	876.502 838.502
62	Finantza-gastuak	45 517	72	Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	3.020.637 3.160.956
63	Tributuak	0 0	73	Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	714.597 666.234
64	Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	3.635.299 3.482.635	75	Ustiapenerako diru-laguntzak	0 0
65	Gizarte prestazioak	0 0	76	Transferentzia arruntak	4.521.000 4.363.643
66	Ustiapenerako diru-laguntzak	0 0	77	Kapitalaren gaineko zergak	653.181 338.328
67	Transferentzia arruntak	911.025 835.603	78	Bestelako diru-sarrerak	69.552 86.204
68	Kapital-transferentziak	23.518 34.993	79	Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	0 0
69	Amortizazioetarako eta horniduretarako hornidura, ekitaldikoa	0 0			0
800	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	1.300.013 1.402.908	800	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0 0
<b>Guztira</b>	<b>10.737.693</b>	<b>10.251.176</b>	<b>Guztira</b>	<b>10.737.693</b>	<b>10.251.176</b>

## Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2015	2014	Deskribapena	2015	2014
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (Saldo zorduna)			80 Ekitaldiko emaitza arruntak (Saldo hartzekoduna)	1.300.013	1.402.908
82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo zorduna)			82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo hartzekoduna)	273.236	73.659
83 Balore-zorroaren emaitzak (Saldo zorduna)			83 Balore-zorroaren emaitzak (Saldo hartzekoduna)		
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	55.307	72.555	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)		
89 Mozkin garbia, guztira (Saldo hartzekoduna)	1.517.942	1.404.012	89 Galera garbia, guztira (Saldo zorduna)		
<b>Guztira</b>	<b>1.573.249</b>	<b>1.476.567</b>	<b>Guztira</b>	<b>1.573.249</b>	<b>1.476.567</b>

#### IV. OHARPENAK, IRITZIAN ERAGINIK EZ DUTENAK, ETA GOMENDIOAK

Ondoren, azterketa labur bat egiten dugu Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioari buruz, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruz eta aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipenari buruz; gainera, honako hauek jaso ditugu: kudeaketa arlo garrantzitsu bakoitzari buruzko iruzkin nagusiak eta, Ganberaren iritziz, Udalak aintzat hartu beharko lituzkeen gomendio nagusiak, antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetze aldera.

##### IV.1. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2015EKO ABENDUAREN 31N

Udalbatzak ez zuen onetsi Udalaren 2015eko aurrekontua eta, aipatu bezala, 2014koa luzatu zen.

1,8 milioiko aurrekontu-aldaketen funtsezko xedea inbertsio errealak handitzea da.

Aitortutako betebeharrak 10,2 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 91ko betetze-maila izan dute.

Betetze-ehuneko handiena duten gastu-kapituluak langileenak (ehuneko 99) eta ondasun eta zerbitzuen erosketena (ehuneko 93) dira. Gastu finantzarioen kapitulua kontuan hartu gabe, bere zenbateko txikia dela eta, betetze maila txikiena duena inbertsioena da, ehuneko 67koa baitu.

Aitortutako eskubideek 11 milioi euro egiten dute, ehuneko 82ko betetze-mailarekin, funtsean finantza-pasiboen kapituluaren betetzea nulua izan delako, eta diruzaintzako gerakinak txertatu direlako.

Diru-sarreraren kapitulu aipagarrienak zuzeneko zergak, tasak eta bestelako diru-sarrerak, eta transferentzia arruntak dira, eta ehuneko 95 egiten dute. Guztiek 100eko 100etik gorako betetzea izan dute.

Haien izaerari erreparatuta, gastu arruntek gastu guztien ehuneko 91 egiten dute eta inbertsio errealek, berriz, ehuneko 9. Tributu bidezko diru-sarrerak (I. kapitulutik III.era) diru-sarreraren ehuneko 55 egiten dute, eta diru-sarrera arrunten guztizkoa ehuneko 97 da.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza iturria	Zenbatekoa
Langileak	47	Tributu bidezko diru-sarrerak	55
Bestelako gastu arruntak	44	Transferentziak	41
Inbertsio errealak	9	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelakoak	4
	100		100

Hona Udalaren 2015erako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2014koarekiko alderaketa:

Adierazleak	2015	2014	2015-2014 aldea (%)
Aitortutako betebeharrak, guztira	10.267.602	9.469.895	8
Aitortutako eskubideak, guztira	11.041.084	10.327.905	7
Gastuen betetzea (%)	91	79	
Diru-sarreren betetzea (%)	82	86	
Ordainketen betetzea (%)	92	92	
Kobrantzen betetzea (%)	89	95	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	9.302.970	8.800.195	6
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	9.302.925	8.799.678	6
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	964.631	669.699	44
Finantza-eragiketengatikoko gastuak (8. eta 9. kapituluak)	0	0	0
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	10.736.565	10.251.176	5
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	6.065.452	5.794.214	5
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	274.519	6.155	4360
Diru-laguntzen mendekotasuna (%)	41	42	-3
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	65	66	-1
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	743.482	787.436	-6
Aurrekontu-emaiza doitua	1.887.183	902.855	109
Aurrezki gordina	1.433.640	1.451.498	-1
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	45	517	-91
Aurrezki garbia	1.433.595	1.450.980	-1
Zorpetze-maila (%)	0	0	
Zorpetze-muga (%)	13	14	
Zorpetze-ahalmena (%)	13	14	
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.436.001	1.681.298	-15
Udalaren zor bizia	0	0	

Izaera arrunteko gastuek ehuneko 6 egin dute gora; gastu arruntak, berriz, ehuneko 5 handitu dira, tributu bidezko diru-sarrerak bezalaxe.

Aurrekontu saldo ez-finantzarioa 743.482 euro positiboa da; 2014an, ordea, 787.436 euro positiboa izan zen. Saldo horrek erakusten digu diru-sarrera ez-finantzarioak nahikoak izan direla izaera bereko gastuak finantzatzeko.

2015eko ekitaldia ixtean, aurrekontuko emaitza bateratu doitua 1,8 milioi euroko superabita erakutsi du. 2014an, emaitzak 902.855 euroko superabita eman zuen; horrek ehuneko 109ko hazkundera adierazten du.

Aurrezki gordina eta aurrezki garbia 1,4 milioiko eurokoak dira, eta gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 1,4 milioi eurokoa da.

2015eko abenduaren 31n, aurreko ekitaldietan bezalaxe, Udalak ez du zorrik inongo finantza-entitatekin.

Eguesibarko Udalak 2007-2015 aldian honako bilakaera hau izan du diru-sarreretan eta gastuetan:

## Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Zuzeneko zergak	1.403.465	1.626.838	1.917.280	2.515.443	2.612.630	2.469.072	2.929.816	3.503.404	3.910.657	4.304.070
Zeharkako zergak	10.239.250	4.622.638	1.269.407	1.063.717	1.631.306	808.142	213.549	270.486	254.860	84.345
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.294.329	1.070.383	1.063.166	1.125.931	1.379.449	1.387.080	1.250.683	1.472.550	1.628.696	1.677.037
Transferentzia arruntak	1.465.831	1.754.000	2.101.282	2.396.374	2.693.349	3.116.127	3.241.973	3.914.883	4.363.644	4.521.000
Ondare diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	109.507	215.880	191.703	74.662	318.813	221.962	40.508	263.739	93.318	150.113
Inbertsio errealen besterentzea	3.270.588	0	2.500	0	200	0	20.000	3.500	6.155	274.519
Kapital-transferentziak	284.501	96.009	187.506	1.438.751	1.018.119	216.674	112.068	64.855	0	0
Finantza-aktiboak								33.734	70.574	30.000
Finantza-pasiboak	600	674	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>18.068.071</b>	<b>9.386.422</b>	<b>6.732.844</b>	<b>8.614.878</b>	<b>9.653.866</b>	<b>8.219.057</b>	<b>7.808.597</b>	<b>9.527.151</b>	<b>10.327.905</b>	<b>11.041.084</b>

## Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Langile-gastuak	2.529.715	2.902.914	3.179.843	3.531.622	3.646.363	3.836.810	3.860.347	4.448.703	4.439.036	4.815.791
Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	2.048.851	2.510.660	2.836.870	2.752.678	2.895.451	3.548.193	3.568.781	3.697.993	3.525.039	3.576.110
Finantza-gastuak	108	15	0	0	238	0	138	3.901	517	45
Transferentzia arruntak	495.138	502.124	588.296	581.507	766.975	701.722	690.415	735.536	835.603	911.025
Inbertsio errealak	4.605.664	6.250.449	2.243.488	1.601.128	2.604.820	1.221.552	428.141	305.582	0	0
Kapital-transferentziak	7.173	21.028	8.917	4.949	8.551	304.582	23.582	10.000	669.699	956.631
Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	8.000
Finantza-pasiboak	360.607	370.890	360.607	360.607	420.607	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>10.047.256</b>	<b>12.558.080</b>	<b>9.218.021</b>	<b>8.832.491</b>	<b>10.343.005</b>	<b>9.612.859</b>	<b>8.571.404</b>	<b>9.201.715</b>	<b>9.469.895</b>	<b>10.267.602</b>

Udala 2006an 5.379 biztanle izatetik 2015ean 19.603 biztanle izatera pasa da. Igoera hori, logikoa denez, lotuta egon da inbertsio-jarduera handi batekin, eta igoera nabarmenak eragin ditu herriarekin lotutako diru-sarreretan eta gastuetan. Halaber, 2006an eta 2007an aipagarriak dira inbertsioetan egindako gastua eta zeharkako zergen bidezko diru-sarrerak.

Ikusten da zuzeneko zergek etengabe egin dutela gora, 2006ko ekitaldian 1.403.465 eurokoak izatetik 2015ekoan 4.304.070 eurokoak izatera pasa baitira (ehuneko 207 egin dute gora); zeharkako zergek, berriz, behera egin dute, eta 2006an 10.239.250 eurokoak izatetik 2015ean 84.345 eurokoak izatera pasa dira (ehuneko 99 egin dute behera).

Gastuei dagokienez, ikusten da aipatutako aldiaren antzeko zenbatekoei eutsi zaiela, baina osaketa oso desberdinarekin. Hartara, 2007an inbertsioak oso aipagarriak dira; gero langile-gastuak eta ondasun arrunten eta zerbitzuen arloko gastuak gora egiten joan dira.

Azken ekitaldian, diru-sarreraren eta gastu arrunten arteko desoreka bat gertatua zen. Desoreka hori hirigintza-jarduketatik heldutako diru-sarrerekin konpentsatzen zen. 2013ko ekitaldia lehenengoa da non, hirigintzako diru-sarrera adierazgarriak falta izanda, diru-sarrera arruntak nahikoak izan diren gastu arruntak finantzatzeko; ekitaldiaren amaieran, aurrekontu-emaizta positiboa izan da, eta diruzaintza-gerakinak gora egin du aurreko ekitaldikoarekin alderatuta; badirudi 2015ean egoera hori finkatu egin dela.

Udalak aurrera eraman duen jardueraren bilakaera honako adierazle hauen alderaketatik ondorioztatzen da 2011tik 2015era.

Adierazlea	2011	2015	Aldea (%) 2015-2011
Zorpetze-ahalmena	-4,68	13,35	-385
Inbertsio indizea	12,70	9,39	-26
Gastu arrunta biztanleko	499	475	-5
Tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko	287,53	309,41	8

Ikus daitekeen bezala, 2011tik 2015era inbertsioek ehuneko 26 egin dute behera. Biztanle bakoitzeko gastu arruntak ehuneko 5 jaitsi dira. Aldi berean, biztanle bakoitzeko tributu bidezko diru-sarrerak ehuneko 8 egin dute gora, eta zorpetze-ahalmena ehuneko -4,68koa izatetik ehuneko 13,25ekoa izatera pasa da.

#### IV.2. AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren beteetzea aztertu dugu, haren hiru atal nagusiei dagokienez.

- Aurrekontu-egonkortasunaren araua: emaitzak 96.076 euroko finantzaketa-ahalmena sortu du, ondoren adierazten dugun bezala:

Kontzeptua	2015
Emaitza finantzarioa (1. kapitulutik 7.era)	743.482
SEC dela-eta egindako doikuntza	-615.335
Sozietatearen diru-sarreraren eta gastuen arteko aldea	-32.071
<b>Finantzaketa-ahalmena</b>	<b>96.076</b>

- Gastuaren araua: 2015eko ekitaldiko gastu zenbakarria 2.295 euro txikiagoa da 2014ko ekitaldiko baino; horrenbestez, bete egiten da gastuaren araua:

Kontzeptua	2014	2015
Gastua (1. kapitulutik 7.era)	9.469.895	10.267.602
Inbertsioak besterentzearengatiko doikuntzak eta beste	-6.155	-348.595
Interesak	-517	-45
Funts finalistekin finantzaturako gastuak	-961.454	-1.124.865
Ikuspuntu finantzariotik jasagarriak diren inbertsioak		184.100
Gastu zenbakarria	8.501.769	8.609.996
BPGaren erreferentziako tasa	1,30	
2015eko gastu zenbakarria	8.612.292	

- Finantza-iraunkortasunaren araua: Udalak zorrik ez dauka.
- Halaber, Udalak, oro har, bete egiten ditu legedia indardunean hornitzaileei ordainketak egiteko ezarritako epeak: 28 egunekoa da epea, gaur egun.

#### IV.3. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZE-MAILA.

Oro har, aplikatzen ari dira Kontuen Ganberak azken txostenetan emandako gomendioak. Aipatu beharra dago ezen 2015ean onetsi egin direla onetsi gabe zeuden sozietate publikoen kontuak.

Txostenean zehar aipatu ditugu oraindik ere ezarri ez direnak edo egindako lanaren ondorioz sortu diren gomendio berriak. Honako hauek, besteak beste:

- *Urtez urte Udalaren aurrekontu orokor bakarra onestea, indarreko legedian aurreikusitako epearen barruan, Udalaren kudeaketarako tresna eraginkorra izan dadin.*
- *Udalerrriak bizi izan duen populazio-igoera dela-eta, gaur egungo zerbitzuak ematearen ondorioz nahiz inbertsio berrien ondorioz alde horrek izanen duen eragina balioestea.*
- *Udal zerbitzuak eskaintzeko hain garrantzitsuak diren obren plangintza eta kudeaketa Udalak berak egin, kontrolatu eta finantzatu behar ditu, gure iritzian.*

#### IV.4. ALDERDI OROKORRAK

Ondoren ematen ditugu, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkatuz, Ganbera honen iritziz Udalak eta bere erakunde autonomoek beren antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko aintzat hartu behar dituzten iruzkinak eta gomendioak.

2015eko ekitaldirako aurrekontua 2014ko aurrekontu luzatua da.

Udalaren kontu orokorra 2016ko irailaren 6an onetsi zen.

Ez da aurkitu 2015eko fakturarik 2016ko aurrekontuari egotzi zaionik.

Udala zenbait prozedura judizialean sartuta dago. Zenbateko ekonomikoaren arabera, honako hauek dira aipagarrienak:

- a) Udalari gastu handiagoa eragin diezaioketen auziak.
  - Udalari eskatutako ondare-erantzukizuna (83/2011 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa): 88.000 euro.
  - Udalak Nafarroako Administrazio Auzitegiaren 2014ko azaroaren 3ko 3219 ebazpenaren aurka aurkeztutako 4/2015 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioa dela eta: 73.679 euro.
  - Erripagañako eraikinen azpiko azaleraren eskubidea besterentzeko prezioari dagokion 273.091 euro ordaintzeko Uharteko Udalak egindako errekerimenduari buruz Eguesibarko Udalak 2014ko abenduaren 11n hartutako Erabakiaren aurkako 46/2015 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. 2016ko azaroaren 4ko epaiak ezetsi egin da Uharteko Udalak aurkeztutako errekurtsua.
- b) Udalari diru-sarrera handiagoak ekar diezazkioketen auziak.
  - Sarrigurengo kirol hiriko zenbait obretan antzemandako ezkutuko akatsak (85/2014 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa). Errekurtsoa Udalaren aldekoa balitz, 135.065 euroko diru-sarrerak ekarriko lituzke. 2015ean, Udalaren aurka ebatzi da hori; horrenbestez, berme gisa emandako abala itzuli egin da, eta auziak, beraz, ez du eraginik aurrekontuan.
  - Eguesibarko Udalak Uharteko Udalaren aurka aurkeztutako 145/2015 auzi errekurtsoa, Erripagañako udalez gaindiko proiektu sektorialaren EIOZean likidazioak ez betetzeagatik: 595.000 euro dira. 2016ko azaroaren 7ko epaiak baietsi egin da Eguesibarko Udalak aurkeztutako errekurtsua.

*Gomendatzen dugu urtez urte Udalaren aurrekontu orokor bakarra onartzea, indarreko legedian aurreikusitako epearen barruan, Udalaren kudeaketarako tresna eraginkorra izan dadin.*



## IV.5. LANGILEAK

Langileen gastua 4,8 milioi eurokoa da; hau da, 2015ean sortutako gastu guztien ehuneko 47.

2014ko ekitaldiari dagokionez, kapitulu hau ehuneko 8 handitu da, honako xehetasun hauen arabera:

	2015	2014	Aldea (%) 2015-2014
Goi-karguak	86.278	53.177	62
Behin-behineko langileak (Udaltzaingoaren burua)	45.967	35.484	30
Funtzionarioak	1.543.163	1.530.179	1
Lan-kontratudun finkoak	24.829	27.249	-9
Aldi baterako lan-kontratudunak	1.660.154	1.500.593	11
Gizarte-zamak	1.455.400	1.292.354	13
	4.815.791	4.439.036	8

Kapitulu honek izan duen gorakada nabarmena zor zaie ordezkapenak betetzeko beharrezkoak diren kontratazio berriei, aparteko orduei eta abarrei, eta haien arrazoia, hein batean, biztanleriaren handitzea izan da, aipatu den bezala.

2015eko otsailaren 3ko 22. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, lan-kontratupeko langileen hitzarmen kolektiboa eta 2014rako eta 2015erako langile funtzionarioentzako eta administrazio-kontratupeko langileentzako Akordioa argitaratu ziren. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak administrazioarekiko auzi-errekurtso bat aurkeztu zuen akordio kolektibo horren zenbait artikuluren aurka.

Errekurtso hori partzialki baiesten duen epaia eman da 2016ko ekainaren 8an, non adierazten baita artikulu batzuk deusezak direla.

2015ean ez zen plantilla organikoa onetsi; hori dela eta, 2014koak jarraitzen du indarrean. Azken hori 2014ko ekainaren 20ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Onetsitako plantillak, guztira, 100 lanpostu dauzka. 2015eko abenduaren 31n, 54 lanpostu daude hutsik, guztira; horietatik gehienak administrazio-kontratua duten langileekin bete dira.

Lanpostu horiek honako alor hauei atxikita daude:

Alorrak	Kopurua
1. Idazkaritzaren Alorra	3
2. Zerbitzu Orokorren Alorra	6
3. Ogasun Alorra	4
4. Hirigintza Zerbitzuen Alorra	4
5. Hezkuntzaren, Kulturaren, Euskararen eta Kirolen Alorra	8
6. Gizarte Ongizatearen eta Enplegu Sustapenaren Alorra	17
7. Musika eskola	16
8. Obrak eta zerbitzuak	11
9. Lorezaintza	10
10. Herritarren babesa	21
Guztira	100

Udalak 133 langile zituen 2015eko abenduaren 31n; honako hau zen banaketa:

Langile motaren arabera	Guztira
Montepioetako funtzionarioak	1
Gizarte Segurantzako funtzionarioak	44
Lan kontratadun finkoak	1
Behin-behineko lan kontratadunak	38
Administrazio-kontratadun langileak	49
<b>Guztira</b>	<b>133</b>

Destinoaren arabera	Guztira
Administrazio orokorra	19
Polizia	22
Gizarte zerbitzuak	20
Enplegu sustapena	19
Hezkuntza, kultura, kirola eta liburutegia	11
Obrak eta zerbitzuak, lorategiak	22
Musika eskola	20
<b>Guztira</b>	<b>133</b>

2015ean, langile funtzionariorik edo lan-kontratupeko langile finkorik kontratatzeke inongo prozedurarik ez da izan Udalean. Horri dagokionez, kontuan hartu beharra dago Eguesibarko biztanleriak azken urteetan izan duen gorakadaz batera funtzionarioen kopurua handitzeko legezko muga etorri dela, eta horrek plantillak eta betetako lanpostuak baldintzatzen dituela.

Aldi baterako kontratazioei buruz egindako azterketan ondorioztatzen da ezen, oro har, haiek zuzen eginda daudela, zeren eta, orokorrean, aldi baterako kontratazioerako zerrendak baitaude hainbat alorre-tako beharrak betetzeko (zerbitzu anitzetarako langilearena da salbuespena), eta egiaztatu baitugu aztertutako kontratazio espedienteetan kontratazioa dauden kontratazio-zerrendetan oinarrituta egin dela.

Langile baten kontratazio-espeditente bat zela eta, kexa aurkeztu zitzaion Nafarroako Arartekoari, eta horrek, Eguesibarko Udaleko alkateari 2016ko ekainaren 23ko datarekin bidalitako idazki batean, zenbait gomendio eman zituen. Esan digutenez, 2016an gomendio horiek betetzen ari dira. Kexa eragin zuen kontratua 2016ko abuztuaren 1ean amaitu zen.

Langile-gastuen lagin bat aztertuta, langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela, ordainsariak betetako lanposturako erabakitakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla ondorioztatzen da, oro har.

*Gomendatzen dugu enplegu eskaintza publikoan sartzeari aurrekontuan zuzkidura duten lanpostu huts guztiak, dagoen behin-behinekotasun maila handia saihesteko, araudi indardunak horretarako bidea ematen duen neurrian.*

## IV.6. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

2015ean, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 3.576.110 euro egin dute, guztira; kopuru hori ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 35 da. 2014ko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu honetako gastuek ehuneko bat egin dute gora.

Kontratazio-prozedurak aztertu dira. Honako taula honetan ematen dugu haien laburpena:

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Eskaintzak egin dituztenak	Zenbatekoa Esleitutakoa (BEZik gabe)
Gorraitzen belarra mozteko laguntza teknikoa	Laguntza teknikoa	Negoziatua	49.500	3	49.500
Erripagañako haurrentzako parkearen instalazioa	Hornidura	Irekia	41.322	9	38.399
Berdegunek mantentzea	Laguntza teknikoa	Irekia	177.686	1	158.128

Halaber, 2015eko abenduaren 31n indarrean dauden baina aurreko ekitaldietan esleitu diren kontratu aipagarrienen jarraipena egin dugu.

Hurrengo taulan, laburbilduta ematen ditugu aurreko ekitaldietan esleitu ziren kontratuak:

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipenduna	Esleitutako zenbatekoa BEZa barne	Esleipena	Kontratua	Prozedura	2015	Desbideratzea	Desbideratzearen %
Garbiketa: Sarrigurrengo udaletxea eta ikastetxe publikoa	Laguntza teknikoa	Distrivisual SL	261.799	2014/07/04	2018/08/01	Irekia, European publizitatea eginda	275.468	13.669	5
Haur eskolak	Kudeaketa	Educacontinuum SLL-Agintzari S. Coop aldi baterako enpresa-elkartea	747.132	2012/07/23	2016/08/01	Negoziatua, European publizitatea eginda	776.343	29.211	4
Familien Arretarako Zentroa	Laguntza teknikoa	Pauma SI	368.537	2011/04/01	2015/04/01	Negoziatua, European publizitatea eginda	420.815	52.278	12
Argiteria publikoaren mantentzea	Laguntza teknikoa	Elecnor SA	42.513	2012/12/18	2016/01/02	Irekia	73.099	30.586	42

Desbideratzeak justifikatuta daude, eta honako hauek dira arrazoiak: ikastetxeetan garbitu beharreko espazioak handitu izana; Familien Arretarako Zentroan egin beharreko lanak; premia bereziak dituzten ikasleak sartzek dakarren gastu handiagoa —horretarako, behar den finantzaketa jaso da—, eta argiteriaren 2014ko laugarren hiruhilekoa kontabilizatu izana.

Aurreko berrikuspenarekin eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bat aztertuta, egiaztatu da gastuak fakturekin eta ziurtagiriekin justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta aplikatzekoa den kontratuei buruzko araudia arrazoiz errespetatu dela.

## IV.7. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Transferentzia arruntengatiko gastuek 911.025 euro egin dute, eta 2015ean sortutako gastu guztien ehuneko 9 dira.

Honako hau da transferentzia arruntengatiko 2015eko eta 2014ko gastuak alderatzeko taula, artikuluz artikulukoa:

4. kapitua	2015	2014	Aldearen %, 2015/2014
ANIMSArentzako ekarpena	60.786	0	100
Foru Komunitateari	22.655	31.603	-28
Toki entitateei	338.318	327.463	3
Kirol klub eta elkarteei	135.437	142.394	-5
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	353.829	334.144	6
4. kapitua, guztira	911.025	835.604	9

2014arekin alderatuta, gastu horiek ehuneko bederatzia egin dute gora, funtsean ANIMSAren ekarpenarengatik (programa informatikoa mantentzeaz arduratzen den enpresa da). Ekarpene hori 2014an "Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak" izeneko 2. kapituluaren zegoen kontabilizatuta.

Toki entitateentzako transferentzien barruan, Udaleko kontzejuen jaiak finantzatzera bideratutako 57.113 euro egotzi dira, bai eta eskualdeko garraioa finantzatzeko 233.756 euro ere (267.000 euro 2013an).

Honako hauek dira 2015ean emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Kontzeptua	2015	2014	Aldearen %, 2015/2014
Oinarrizko gizarte-zerbitzuarentzako laguntzak	97.297	141.864	-31
Lankidetzaren proiektuak	62.000	62.000	0
Kontzejuei jaiak antolatzeko emandako laguntzak	57.113	55.460	3
Kirol klubentzako laguntzak	37.424	52.750	-29
Udalaren kirol eskoletarako diru-laguntza	57.452	48.772	18
Diru-laguntzak Laguntzak 0-3 urtekoentzako zentroak, ibarretik kanpo	17.876	35.429	-50
Udal talde politikoentzako diru-laguntzak	40.561	40.872	-1
Enpleguaren sustapena	63.204	4.282	1376
Diru-laguntzak Kolektibo sozialak	30.000	30.000	0
Diru-laguntzak Sarrigurengo ikastetxe publikoaren jarduketara	22.000	16.000	38
Oteiza Museoarekiko lankidetzaren hitzarmena	15.000	15.000	0
4. kapitua, guztira	499.926	502.429	0

Udalak ez du diru-laguntzetarako plan estrategikorik ezta ordenantza orokorrik ere; diru-laguntzak ordenantza espezifikoaren bidez arautzen ditu.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da gastu horien kudeaketa egokia izan dela, oro har.

Gure gomendioak:

- *Diru-laguntzen plan estrategiko bat egitea, eta bertan zehaztea helburuak, efektuak, aurreikusitako kostuak, baliabideen aurreikuspena, eragina eta abar.*
- *Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onartzeko egokitasuna aztertzea.*

## IV.8. INBERTSIOAK.

2015. urterako aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (1.429.838 euro) ehuneko 67 bete da, eta 956.631 euroa iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldirako aitortutako betebeharrak guztien ehuneko bederatzia.

2014an, inbertsioak 669.699 eurokoak izan ziren; hori dela eta, 2015ean ehuneko 43 handitu dira.

Honako hauek dira 2015ean egindako inbertsio garrantzitsuenak:

Inbertsioa	Zenbatekoa (eurotan)
Baratze sozialak eta lorezaintzako mintegiak	86.132
Eguesibarko hilerria zabaltzea	65.094
Haur parkeko hesi perimetrala eta bestelakoak	46.462
Ikastetxe publiko berriko jantokia	324.444
Ikastetxe publikoko inbertsioa	111.878
Zerbitzu anitzetarako makineria erostea	38.036
Oinezkoen pasabideak argiztatzeko obrak	57.118
<b>Guztira</b>	<b>729.164</b>

Ondorengo taulan zehazten diren espedienteak aztertu ditugu:

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen-prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Eskaintza-egileen kopurua	Esleitutako zenbatekoa (BEZik gabe)
Baratzeetako eraikinaren 1. faseko obrak	Obra	Irekia	58.885	2	57.707
Eguesibarko hilerria zabaltzeko obrak	Obra	Irekia	56.574	8	46.304
Oinezkoen pasabideak argiztatzeko obrak	Obra	Irekia	57.025	6	47.205

Kontratu horiek honako betetze hau izan dute:

Kontratua	Kontratu mota	Esleipenduna	Esleipenaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Esleipenaren zenbatekoa (BEZarekin)	Esleipenaren data	Ematea	Prozedura	2015	Desbideratzea	Desbideraketaren %
Baratzeetako eraikinaren 1. faseko obrak	Obra	Eguesibarko Berotegiak aldi baterako enpresa-elkartea	57.707	69.826	2015/01/26	2 hila-bete	Irekia	83.577	13.751	20
Eguesibarko hilerria zabaltzeko obrak	Obra	Apezetxea Anaiak	46.304	56.028	2015/05/26	2 hila-bete	Irekia	60.025	3.997	7
Oinezkoen pasabideak argiztatzeko obrak	Obra	Teva SL	47.205	57.118	2015/07/10	2 hila-bete	Irekia	57.118	0	0

Inbertsioetan egindako gastuaren eta zenbateko hauen artean dagoen aldea proiektuei, obren iraupenari eta desjabetzei dagozkie, eta esleitutako zenbatekoaren aldean izan diren desbideratzeak Baratzeak eraikinean gertatu ziren, zeren eta hasierako esleipenaren zabalpen bat onetsi baitzen, eta hilerriko obretan, obra-unitate handiagoak izan baitziren.

Egin den azterketak erakutsi duenez, kontratuei buruzko legedia bete egin da bai espedienteak izapidetzean, bai haiek esleitzean eta betetzean ere, haien alderdirik aipagarrienetan, eta kontabilizaturiko gastuak ere arrazoizkoak direla egiaztatzen da.

## IV.9. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2015eko ekitaldian aitortutako eskubideen zenbatekoa 11 milioikoa izan da; horietatik, ehuneko 97 eragiketa arrunten bidezko diru-sarrerei dagokio, eta horien artean nabarmentzen dira tributu bidezko diru-sarrerak, 6 milioi eurokoak, eta transferentzia arruntak, 4,5 milioi eurokoak.

Diru-sarreren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 82koa izan da. Tributu bidezko diru-sarreren eta transferentzia arrunten kapituluek ehuneko 100etik gorako betetzeak dituzte, zeharkako zergetan (EIOZa) izan ezik, azken horretan betetzea ehuneko 37koa izan baita.

2015eko eta 2014ko ekitaldietan, ez da Andacelay SL hirigintza sozietatearen erreserben kargurako dibidendurik jaso. Sozietate horrek 226.000 euro banatu zituen 2013ko ekitaldian.

2014. urtearen aldean, aitortutako eskubideek ehuneko 7 egin dute gora. Hona xehakatzeara:

Diru-sarreren kapitulua	Aitortutako eskubide garbiak		2015/2014 aldea (%)
	2015	2014	
1. Zuzeneko zergak	4.304.070	3.910.657	10
2. Zeharkako zergak	84.345	254.860	-67
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.677.037	1.628.696	3
4. Transferentzia arruntak	4.521.000	4.363.644	4
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	150.113	93.318	61
<b>Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)</b>	<b>10.736.565</b>	<b>10.251.176</b>	<b>5</b>
6. Inbertsioen besterentzea	274.519	6.155	4360
7. Kapital-transferentziak	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	30.000	70.574	-57
9. Finantza-pasiboak	0	0	0
<b>Kapital-sarrerak eta finantza-eragiketenak (6tik 9ra)</b>	<b>304.519</b>	<b>76.729</b>	<b>297</b>
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>11.041.084</b>	<b>10.327.905</b>	<b>7</b>

2015eko ekitaldian, nabarmentzekoa da diru-sarrera arruntek ehuneko 5 egin dutela gora, eta gora egin dutela, halaber, inbertsioen besterentzearen bitartezko diru-sarrerak. Azken horren zenbateko nagusia azalera-eskubideen besterentzeari dagokio; hain zuzen, Uharteko Udalak sartu zituen 273.091 euro dira. Horren aurkako errekurtsua ezetsi egin zen, IV.4 atalean aipatu den bezala.

Ondoko taulan ikusten da diru-sarrera arrunt hauek eta EIOZak azkeneko urte hauetan izan duten bilakaera:

Diru-sarreren kapitulua	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Diru-sarrera arruntak ken EIOZa	5.273.431	6.112.411	7.004.240	7.194.240	7.462.980	9.154.576	9.996.315	10.652.220
EIOZa	1.269.407	1.063.717	1.631.306	808.142	213.549	270.486	254.860	84.345
Diru-sarrera arruntak	6.542.838	7.176.128	8.635.546	8.002.382	7.676.529	9.425.062	10.251.176	10.736.565

Ikusten da EIOZetik heldu diren diru-sarrerak behera egin dutela, eta gainerako diru-sarrera arruntek, ordea, gora egin dutela. Bilakaera horrek eragin nabarmena du udalerriko populazioaren hazkundean eta eraikuntza-jardueraren jaitsieran.

Ondorengo taulan udal-zerga bakoitzak aitortutako eskubideek azken bi ekitaldi hauetan izan duten bilakaera erakusten da:

Diru-sarreraren kapitulua	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%) 2015/2014
	2015	2014	
Lurraren kontribuzioa	2.656.140	2.652.437	0
Ibilgailuak	714.490	666.127	7
Lurren balio-gehikuntza	653.181	338.328	93
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	280.153	253.658	10
EIOZa	84.345	254.860	-67
<b>Guztira</b>	<b>4.388.308</b>	<b>4.165.410</b>	<b>5</b>

Alde nagusia lurren balio-gehikuntzan ikusten da, funtsean 2015ean likidatu zen gainbalio batengatik: 246.687 euro egiten zuen eta 2016ko martxoan kobratu da.

Udalak aplikatutako tasak hurrengo taulan ikus daitezke:

	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	0,1575	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza. Gaurkotzearen koefizientea	2,1 eta 2,8 bitarte	2 eta 3,8 bitarte
Zerga-tasa	12	8 eta 20 bitarte
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	4,5 eta 4,8 bitarte	2 - 5,0

Tasa hauetan ez da alderik izan 2009ko ekitalditik.

Diru-sarreraren aurrekontuko kontu-sailen lagin batean azterketa egin ondoren, oro har egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

#### IV.10. HIRIGINTZA.

Hirigintza entitateak berak kudeatzen du, nahiz eta "Andacelay SL" erantzukizun mugatuko sozietateak, zeinak Udalean kapital eskusiboa baitu, helburu izan, besteak beste, hirigintza-planeamenduko eta hirigintza-kudeaketako tresnak idaztea.

Hirigintzaren udal arloaren barruko kudeaketa eta kontrola hari atxikitako langileekin egiten da: bi arkitekto, arkitekto tekniko bat eta ofizial administrari bat, idazkariaren eta aholkulari juridikoaren/kudeatzailearen laguntzarekin.

Honako hau da indarrean den planeamendua:

- Eguesibarko Udal Planaren Testu Bategina (Lurraldearen Antolamenduko Batzordearen 1999ko ekainaren 1eko Erabakiaz behin betiko onetsia). Planeamendua dela eta, geroztik zenbait aldaketa egin dira.
- "Gorraizko Jaurerria" antzinako plan partzialaren esparruan udal planaren zehaztapen xehakatuaren aldaketaren testu bategina (2005eko ekainaren 21eko Osoko Bilkuran behin betiko onetsia). Planeamendua dela eta, geroztik zenbait aldaketa egin dira.
- "Sarrigurengo Ekohiria" udalez gairdiko plan sektoriala (Nafarroako Gobernuaren 2000ko urriaren 16ko Erabakiaz onetsia). Planeamendua dela eta, geroztik zenbait aldaketa egin dira.
- Erripagañako udalez gairdiko plan sektoriala (Nafarroako Gobernuak 2004ko ekainaren 28ko Erabakiaz onetsia). Planeamendua dela eta, geroztik zenbait aldaketa egin dira.
- "Salestarrak" udalez gairdiko plan sektoriala, Iruñeko eta Eguesibarko udalerrietan (Nafarroako Gobernuaren 2012ko ekainaren 13ko Erabakiaz onetsia). Honi aldaketaren bat egin zaio gero.

2006ko abenduaren 13an, Lurraldearen Antolamenduko Batzordeak Eguesibarko udal plan orokorreko lurraldearen erabilerarako estrategia eta eredia (LEEE) onetsi du.

Aipatutako LEEEA aldatu egin zen, eta berria Lurraldearen Antolamenduko Batzordeak onetsi zuen 2010eko urtarrilaren 26ko bilkuran.

2010eko maiatzaren 5eko Osoko Bilkuran, hasierako onespina eman zitzaion Eguesibarko udalaren plan orokorraren azterketari, "Eguesibarko Udalaren plan orokorraren" izeneko proiektuari jarraituz, eta horrekin batera, ingurumen eraginaren azterlana, haren osagai gisa.

Erakusketa publikoko aldia eta gero, 2011ko urtarrilaren 4ko Osoko Bilkuran, behin-behineko onespina eman zitzaion Eguesibarko udal plan orokorraren berrikuspenari, eta orduan Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari igorri zitzaion, behin betiko onespina eman ziezaion.

Lurraldearen Antolamenduko eta Etxebizitzako kontseilariaren maiatzaren 16ko 76/2011 Foru Aginduaren bitartez, behin betiko onespina eman zitzaion Eguesibarko Udalaren udal plan orokorrari, eta hura argitaratzeko baldintza gisa jarri zen ezarritako zehaztapenak zituen testu bategin bat aurkeztea.

76/2011 Foru Aginduaren aurkako gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zen, eta Nafarroako Gobernuaren 2011ko urriaren 19ko Erabakiaz partzialki onetsi zuen errekurtsioa, eta foru agindua deuseztatu eta jarduketak behin betiko onespinen aurre-urreko egoerara eraman ziren, planaren dokumentua zuzendu eta behin betiko onespina emateko.

Errekurtsioa baietsita, ez zen plana izapidetzen jarraitu, eta indarrean jarraitzen du 1999koak.

Planeamendu berria indarrean jarri arte, oztupoak izanen dira lbarraren hirigintza planeatzeko, garatzeko, burutzeko eta gauzatzeko, Udalaren beraren eta Udaleko kontzejuen planeamendu-tresna desberdinak daudelako aldi berean.

Tokiko Gobernu Batzarraren 2016ko otsailaren 22ko Erabakiaz, udal planaren berrikuspenaren aurretiko parte-hartze prozesu bat egiteko laguntza kontratatzeke prozedura abiatu zen, eta laguntza hori Tokiko Gobernu Batzarraren 2016ko maiatzaren 23an esleitu zen.

2015ean, zenbait hirigintza-jarduketa egin dira, xehetasun-azterlanen, ordenantza batzuen eta udal planeko partzial batzuen aldaketekin lotutakoak, jarduketa-esparru jakin batzuetan.

Hirigintza-hitzarmenen erregistro-liburu bat badago, eta 2015ean nabarmentzen dugu Nafarroako Gobernuko Sustapen Departamentuarekin eta Salestarren udalez gaindiko plan sektorialeko banaketar-arloko Konpentsazio Batzarrarekin sinatutakoa, Ekialdeko saihebidetako sarbideak hobetzeko. Eguesibarko Udalaren 2015eko maiatzaren 7ko Osoko Bilkurak onetsi zuen.

Udalak udal inbentario bat egina dauka, bai eta Lurzoruaren Udal Ondarearen berriazko erregistro bat ere. Azken hori osatzen duten elementuen balioa 7.988.858 eurokoa da 2015eko abenduaren 31n (6,7 milioi euro 2014ko abenduaren 31n). Egindako azterketan, ikusi da biak gaurkotuta daudela eta, orokorrean, Udalak haien gaineko kontrol egokia duela.

*Gomendatzen dugu udal plan bat egitea, gaur egun dagoena, 1999koa, ordeztzeko.*



#### IV.11. ANDACELAY SL SOZIETATE PUBLIKOA

Andacelay SL sozietatearen 2015eko abenduaren 31ko urteko kontuak kanpoko auditoreek egindako auditoria finantzarioko txosten batean aztertu ziren, eta iritzia aldekoa izan zen. Kontuak Akziodunen Batzar Nagusiak onetsi zituen 2016ko ekainaren 30ean.

Sozietateak kudeatzaile bat dauka 2012ko abendutik.

Sozietatearen ondare garbia 2015eko abenduaren 31n 3,83 milioi eurokoa da; 2014ko abenduaren 31n, berriz, 3,86 milioi eurokoa zen. 2015eko ekitaldiaren emaitza 32.071 euroko galera izan da, aurreko urtean lortutakoa baino finantza-emaitza txikiagoa lortu baita.

2015ean, ez da entitatearen izakinen narriatzearen ondoriozko inongo doikuntzarik egin behar izan. Saldoak, horrenbestez, 21.588 eurokoa izaten jarraitzen du.

2015eko ekitaldian, lokal bat saldu da 56.395 euroan.

Aktibo zirkulatzailearen "Efektiboaren eta bestelako aktibo likidoen" kontu-saila 1,9 milioi eurokoa da 2015eko abenduaren 21ean, eta "aldi baterako finantza-inbertsio" gisa erregistratutako epe laburreko gordailu bat ere badago, 1,5 eurokoa; horrek, guztira, 3,4 euroko efektiboa egiten du. Aurten, ez da erregistratu "epe luzeko finantza inbertsiorik".

Gainera, 2015eko itxieran, balantzeak 416.915 euroko izakinak (ondasun higiezinak) islatzen ditu; 2014ko izakinak, berriz, 470.233 eurokoak izan ziren.

Sozietateko Administrazio Kontseiluko burua alkatea da, bazkideen 2012ko ekainaren 28an batzar orokorraren aktaren bidez izendatua.

#### IV.12. GESTIÓN Y PROMOCIÓN EGÜÉS 21-II SL SOZIETATE MISTOA

2015ean, 2012ko, 2013ko eta 2014ko kontuak egin eta onetsi dira. Administrazioa guztiek ez dituzte sinatu 2014ko ekitaldiko urteko kontuak. Sozietateak 2015ean kanpoko auditoria bat egin du 2012ko, 2013ko eta 2014ko kontuei buruz, eta iritzia aldekoa izan da.

2015eko urteko kontuak, aldeko auditoria izan dutenak, 2016ko ekainaren 30ean egindako batzarrean onetsi ziren.

Auditorian eta kontu orokorren oroitidazkian aipatzen denez, kontu horiek "ez dituzte sinatu sozietateko administrazioa guztiek, legedin indardunak agintzen duen bezala. Zehazki, NASIPA SL sozioa ordezkatzeko duten administrazioa guztiek ez dituzte 2015eko ekitaldiko urteko kontuak egin, zeren eta, haien iritziz, 2015eko urtarrilaren 1eko saldoak ez baitaude formulatuta Kontuen Kontabilitate eta Auditoria Institutuak ezartzen duenari jarraituz gastu finantzarioak geroratzeko gaiari dagokionez (ikus 2015eko ekitaldiko oroitidazkiaren 2.3 oharra) eta Administrazio Kontseiluaren erabakien aurka baitaude zentzu berean (sustapenaren amaieran ordaintzea) —hori guztia kide guztiek onartu zuten Agoizko lehen auzialdiko eta instrukzioko 1. epaitegian—, eta ez dituzte formulatuko bidezko diren aldatetarik egiten ez diren arte. Ez daude ados, ezta ere, kontzeptu horren pean biltzen diren kopuruekin (zehazki, maileguaren interesak ez diren gastu guztiak, nola baitira aseguruak, abalak eta publizitate-gastuak). Nolanahi ere, iragartzen dute beren esku gordetzen dituztela haiek aurkatzeko dagozkien legezko ekintza guztiak, halakoak formulatzen dituzten kontseilarien aurka eta, kasua bada, auditorearen aurka, aipatzen dutenaren ondorioz dagozkien salbuespenak egiten ez baditu".

Horri dagokionez, Kontuen Ganberak 2014an egindako txostenera jotzen dugu: "Eguesibarko Udalaren sozietate publikoen kudeaketa (2014-2013)".

Sozietateak 1.002.058 euroko ondarea dauka 2015ean; 2014an, berriz, 752.718 eurokoa zeukan, nagusiki erreserbekin eratua (749.618 euro). 2015eko pasibo ez-korrontea zero eurokoa da (2014an 2.596.414 eurokoa izan zen). Sozietate honek ez du langilerik.

Jarraian, izakinen xehetasunak, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n:

Xehetasunak	2015	2014	Aldearen %, 2015/2014
Etxebizitzei lotutako garajeak	29.220	100.500	-71
Etxebizitzei lotutako trastelekuak	31.230	107.289	-71
Etxebizitzak	772.828	2.659.342	-71
Lokalak	98.400	98.400	0
Garaje libreak	54.600	63.000	-13
Hornitzaileei emandako aurrerakina	5.289	7.465	-29
Balio-galera	-92.136	-310.003	-70
<b>Guztira</b>	<b>899.431</b>	<b>2.725.993</b>	<b>-67</b>

Ikus daitekeen bezala, 2015ean zehar inbentarioaren ehuneko 67 saldu da.

2013ko ekainaren 14an, bazkide pribatua hartzekodunen borondatezko konkurtsoan deklaratu zen. 2014ko ekitaldiko urteko kontuak egiteko egunean (2015-06-30ean), hartzekodunekiko hitzarmena egiteko proposamen bat bazegoen, zeina administratzaile konkurtsalak ontzat eman baitzuen, bazkide pribatuak aurkeztutako bideragarritasun planean oinarritua.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

## BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Eskatzen dut 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazioko behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazio gisa har dadila 5. orrialdeko taulan, Udalak ematen dituen zerbitzu publiko nagusiei buruzkoan, bi huts hauek hauek badaudela:

- Taxi zerbitzua, eskatuta ematekoa, Badoztainen.
  - Bidaiarien garraio publikoa Ibiriku, Elkanan, Egues, Sagaseta eta Altzuzako kontzejuetarako.
- Eguesibarko Sarrigurenen, 2017ko urtarrilaren 17an.  
Alkatea: Alfonso Etxeberria

## AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Eguesibarko Udaleko alkateak aurkeztutako alegazioak aztertuta, txostenean erantsi ditugu, uste baitugu ez diotela haren edukiari eragiten, eta txostena behin betikotzat jo dugu.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga